BASA BURUA

168. ALEA - 2024KO MAIATZA

# BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA

www.basaburua.eus
udala@basaburua.eus
948 50 30 35

## UDAL BULETINA, BERRIZ ERE MARTXAN

Hilabetean behin, Basaburuko etxe guztietara iritsiko da, herritarrek udal informazioa eskura izan dezaten. Udalaren azken egitasmoak, hartutako erabakiak, aurrera eraman diren edo aurreikusten diren lanak, eta azken berriak argitaratuko dira bertan. Baita alkatetza ebazpenak edo bailaren ematen diren ekitaldi kulturalen berri emateko albisteak ere.

Aldizkariak lau orrialde izanen ditu: azala, bi orri, eta kontrazala. Orriz orri, albiste nagusiak, oharrak eta albiste motzagoak banatuko dira. Tarteka, elkarrizketak ere jasoko dira. Hilabete bukaeran egiten den pleno bakoitzaren ondoren prestatuko da, eta hurrengo plenoa baino lehen banatuko da etxeetan.

Hau, maiatzekoa, izanen da legealdi honen lehena eta buletina osatzeko, Basaburuko udalak Ametza kultur elkartearekin sinatu du hitzarmena.



## VUELVE EL BOLETÍN MUNICIPAL

Llegará a todas las casas de Basaburua una vez al mes, con el objetivo de que los vecinos y vecinas reciban toda la información municipal. En él se publicarán, entre otras, las últimas iniciativas y decisiones del ayuntamiento, las obras llevadas a cabo o las que se prevén, y las últimas noticias. También se informará de las resoluciones de alcaldía o sobre los últimos eventos culturales.

El boletín contará con cuatro páginas: la portada, dos páginas interiores y la contraportada. De una en una recogerán las principales novedades municipales y los avisos o notas informativas más cortas. Entre tanto, de vez en cuando, también habrá espacio para entrevistas. El boletín se completará después de cada pleno municipal y llegará a los buzones del valle antes del siguiente pleno.

Este, el de mayo, es el primero de la legislatura y la asociación cultural Ametza se encarga de su realización.



BULETINAMAIATZA.indd 1 14/05/2024 8:00:46

## TXOKOLATERORE N ETXEKO ADINDUENDAKO PROIEKTUAN, PAUSU BAT GEHIAGO

Lehiaketa publikora atera ondoren, apirilaren 26an hautatu zen Sasturain Etxeko beheko solairuan aurrera eraman nahi diren lanen behin behineko proiektua. Bi enpresa aurkeztu ziren eta AMA Arquitectural office enpresak aurkeztutako ideia onartu da. Ideia horren proiektua diseinatzeko eta idazteko hilabete bat du. Ondoren, etxea egokitzeko lanen esleipena etorriko da.

Lehenengo fase honetan, beheko solairuan zer eginen den zehaztuko da. 430 $m^2$ ditu, eta hainbat gelatan banatu nahi da: eguneko arreta zentrora bideratuko dena, autonomia bultzatzeko jarduerak egiteko gela bat eta jubiloteka bat izanen ditu. Gainera, sukaldea eta jantokia ere egin nahi dira, bertan bazkalduko duten erabiltzaileentzat eta nahiko luketen adineko herritarrentzat. Aurrerago, bigarren fase batean etorriko dira gainontzeko solairuen lanak. Gaur egun, tutoretzapeko apartamentuak eta kudeatzaileen bulegoan aurreikusten dira, baina hori zehazteko gelditukо da.

## UN PASO MÁS EN EL PROYECTO PARA PERSONAS MAYORES DE TXOKOLATERO

Tras el concurso público, el 26 de abril se adjudicó el proyecto de redacción de las obras que se llevarán a cabo en la planta baja de la casa Sasturain, conocida como Txokolatero. Entre las dos empresas que se presentaron, se escogió AMA Arquitectural office. Ahora, tiene un mes para redactar el proyecto de obra, y, más tarde, llegará el concurso de adjudicación para las propias obras.

La planta baja tiene 430 $m^2$ que se quieren repartir en varias estancias: la destinada al centro de día, otra para realizar actividades de impulso de la autonomía y otra para una jubiloteca. Además, contará con cocina y comedor, donde comerán las personas usuarias del centro de día y también aquellas personas mayores que lo deseen y no sean usuarias. Después de esta primera fase, vendrán las del resto de plantas, donde se prevén pisos tutelados y las oficinas, pero esto se concretará más adelante.



Beheko solairuko lan hauetarako, Basaburuko udalak 200.000 euroko laguntza eskuratuko du, Nafarroako Gobernuak aurrekontuetan onartu duen diru laguntzaren bidez. Asmoa, dena ongi bidean, beheko solairuko lan guztiak datorren urteko udaberrian bukatzea da.

Jauntsaratsen kokatzen da Sasturain etxea, txokolatero izenarekin ezagutzen dena. Basaburuko Udalak joan den urteko irailean iragarri zuen etxea eskuratzeko hitzarmena egin zuela eta adinduen nazioarteko egunean, urriaren 1ean, Sasturain familiari omenaldia egin genion. Etxe enblematikoa izan da Basaburuan, estankoa, denda, eta hainbat zerbitzu eskaini dituelako.

Los trabajos de la planta baja están subvencionados en 200.000 euros, ya recogidos en los presupuestos del Gobierno de Navarra. Si todo sigue en plazo, el objetivo es que las obras de la planta baja finalicen en la primavera del año que viene.

La casa Sasturain está ubicada en Jauntsarats y es conocida como la casa de Txokolatero. El Ayuntamiento de Basaburua anunció el acuerdo de adquisición el pasado septiembre y el Día Internacional de las Personas Mayores, el 1 de octubre, ofreció un homenaje a la familia Sasturain. Casa emblemática, lugar de muchos servicios como la tienda y el estanco, entre otros.



BULETINAMAIATZA.indd 2 14/05/2024 8:00:50

# BASABURUKO INDUSTRIAGUNEA PREST

Basaburuko poligonoaren urbanizazioa eta lanak amaitu dira, lehenengo faseko partzeletan. Izan ere, proiektuan adierazi genuen bezala, bi fasetan eraikitzea da asmoa, eta lehenengo fase honetan bost partzela urbanizatu dira. Irudian ikusi daitezkeen P-1, P-2, P-3, P-4; eta, P-6 partzelak. Beste biak beharren arabera handitzeko izanen dira (P-7 eta P-5, irudian).



Hauek dira lursailen tamaina eta prezioa:
1. Lursaila: 65.213,1 € (1.449,18 $m^2$; eraikigarriak: 1.395 $m^2$).
2. Lursaila: 39.150,45 € (870,01 $m^2$; eraikigarriak: 838 $m^2$).
3. Lursaila: 37.741,5 € (838,70 $m^2$; eraikigarriak: 808 $m^2$).
4. Lursaila: 38.011,05 € (844,69 $m^2$; eraikigarriak: 813 $m^2$).
6. Lursaila: 88.603,2 € (1.968,96 $m^2$; eraikigarriak: 1.896 $m^2$).

Metro koadroaren prezioa 45 eurotakoa da; eta, gune berrian lursail bat erosteko interesa duenak 948 50 30 35 telefonora deitu edo udala@basaburua.eus idatzi dezake.

Basaburuko udalaren nahia da bertako enpresa eta tailer txikiendako tokia izatea, kanpora joan ordez, hemen gelditzeko aukera izan dezaten. Gainera, inpaktu paisajistikoa murrizteko nabeek 8,5 metroko altuera izan dezakete gehienez, eta bi solairu. Eraikinek kolore zuria eta bi isurialdeko teilatu gorrixka izan beharko dute. Beramendin, Itsasorako bidegurutze ondoan kokatzen da poligono berria.



# EL POLÍGONO DE BASABURUA ESTÁ LISTO

Han finalizado las obras de urbanización del polígono de Basaburua en las parcelas de la primera fase. Y es que la intención es completarlo en dos fases, tal y como se indicó en el proyecto. En esta primera fase se han acondicionado cinco parcelas: P-1, P-2, P-3, P-4 y P-6, en la imagen. Las dos restantes serán para futuras ampliaciones, según las necesidades.

El precio del metro cuadrado se ha fijado en 45 euros y el que tenga interés en adquirir alguna de las parcelas puede llamar al teléfono 948 50 30 35 o escribir a udala@basaburua.eus.

Estas son las medidas y los precios de cada parcela:
1. Parcela : 65.213,1 € (1.449,18 $m^2$; edificables: 1.395 $m^2$).
2. Parcela: 39.150,45 € (870,01 $m^2$; edificables: 838 $m^2$).
3. Parcela: 37.741,5 € (838,70 $m^2$; edificables: 808 $m^2$).
4. Parcela: 38.011,05 € (844,69 $m^2$; edificables: 813 $m^2$).
6. Parcela: 88.603,2 € (1.968,96 $m^2$; edificables: 1.896 $m^2$).



El objetivo del ayuntamiento es que haya espacio para las empresas y talleres de la zona y que, en lugar de irse fuera, tengan oportunidad de desarrollar su actividad aquí. Para reducir el impacto paisajístico, las naves no podrán superar los 8,5 metros de altura y no podrán tener más de dos pisos. Los edificios deberán ser blancos y con tejado rojizo a dos aguas. El nuevo polígono se sitúa en Beramendi, al lado del cruce de Itsaso.



BULETINAMAIATZA.indd 3 14/05/2024 8:00:58

## OSTALARIAK, EUSKARA IKASTEN

Udalaren eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) laguntzarekin, Basaburuko ostalariak euskara formakuntza jasotzen ari dira. AEKk ematen ditu klaseak, astean lau orduz, bi egunetan. Zazpi ostalarik parte hartu dute, Orokietakoek, Beruetekoek, Aizarozkoek, Apeztegiberrikoek eta Udabekoek. Ikastaroa doanik jasotzen ari dira, erdia udalak eta beste erdia UEMAk ordaintzen baitu. Apirilaren 10ean hasi zen eta maiatzaren 22an bukatu da ikastaroa.

## CLASES DE EUSKARA PARA L@S HOSTELER@S

Con la ayuda del Ayuntamiento de Basaburua y de la Mancomunidad de los municipios vascos (UEMA en sus siglas en euskara), los y las responsables de los establecimientos de hostelería de Basaburua han recibido clases de euskara. Las clases, de cuatro horas a la semana durante dos días, están a cargo de AEK. Son siete las personas que están participando en el programa: los responsables de la posada de Orokieta, de Beruete, de Aizarotz, de Apeztegiberri y de Udabeko benta. La formación está subvencionada por el ayuntamiento y la UEMA.

## LAU LANGILE KONTRATATU DITU UDALAK

Aldi baterako langileak dira, hiru hilabetez, lorezaintza lanetan arituko direnak, jardunaldi osoan. Bi hasi dira dagoeneko eta beste bi ekainean sartuko dira.

## CUATRO CONTRATOS NUEVOS

Desde el Ayuntamiento de Basaburua hemos contratado a cuatro personas nuevas para trabajos de jardinería. Se trata de cuatro contratos temporales, de tres meses, en jornada completa. Dos de las cuatro personas contratadas han comenzado ya y las otras dos entrarán en junio.

## TAXIA, BASABURUAN

Denbora generamatzan taxi zerbitzua esleitu nahian, eta, azkenean, lortu dugu. Martin Perurena Beltza orokietarrak eskainiko du taxi zerbitzua, maiatzetik. Astez, eskola garraioaren zati bat hartuko du bere gain, eta, taxi zerbitzua emanen du. Asteburuetan, aurrez eskatu beharko da zerbitzua. Telefono zenbakia: 621 12 69 94.



## TAXI EN BASABURUA

Llevábamos tiempo queriendo adjudicar el servicio, y, al final, lo hemos conseguido. Desde mayo, Martín Perurena Beltza, de Orokieta, será quién lo ofrezca. Durante la semana, se encargará de una parte del transporte escolar, además del servicio de taxi. Los fines de semana funcionará mediante reserva previa. El teléfono es el 621 12 69 94.



## BASABURUKO EGUNA EKAINAREN 1 EAN

Egitarauko ekimen nagusiak herri kirolak, zirku tailerra eta bazkaria dira, baina, gainera puzgarriak izanen dira egun osoan eta, iluntzean, musika. Berritasun bezala, aurten udalak jasangarritasunaren aldeko apustua eginen du eta, hala eskatuta, edalontzi berrerabilgarriak erabiliko dira, Iruñeko Mankomunitateak utzita.

## 1 DE JUNIO: DÍA DE BASABURUA

Como cada año, la fiesta acogerá varias actividades: herrikirolak, taller de circo, comida popular y, además, hinchables durante todo el día. A la noche, también habrá música. Este año, el ayuntamiento ha pedido vasos reutilizables a la Mancomunidad de Pamplona, como apuesta por la sostenibilidad.

## SEGA UDABERA ITZULIKO DA

Ekainaren 8an Almitza sega elkarteak urtero antolatzen duen Euskal Herriko Sega Txapelketa izanen da Udaben. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Bakarkako Sega Ligaren bigarren saioa izanen da Udabekoa, aurretik Goiatzen izanen baita lehenengoa eta hirugarrena eta finala, Legorretan, ekainaren 30ean. Izena ematen dutenek ondorengo belar-sailak ebaki beharko dituzte: emakumezkoek, 35 $m^2$ (5 m x 7 m); gizonezkoek, 100 $m^2$ (10 m x 10 m); eta, beteranoek, 50 $m^2$ (10 m x 5 m).

## LA SEGA VUELVE A UDABE

El campeonato de sega de Euskal Herria, que organiza todos los años la asociación Almitza, volverá a Udabe el 8 de junio. En concreto, será la segunda jornada del campeonato individual la que se disputa en Udabe. Antes, la primera jornada será en Goiatz y, después, la tercera, en Legorreta. Los participantes tendrán que cortar 35 $m^2$ en el caso de las mujeres (5 m x 7 m), 100 $m^2$ (10 m x 10 m) en el caso de los hombres; y, 50 $m^2$ (10 m x 5 m), los veteranos.



BULETINAMAIATZA.indd 4 14/05/2024 8:01:06